



PRENTSA-OHARRA

IK4k Makina Erremintaren Kongresuan aurkeztu ditu bere gaitasunak

- *Aliantza Teknologikoak parte-hartze handia izan du egun hauetan Gipuzkoako Teknologia Parkean egiten ari den foroan*
- *Aliantza osatzen duten zentroek, zenbait hitzaldi tekniko eman dituzte eta, haietan, fabrikazioko azken aurrerapen teknologikoak azaldu dituzte*

(Eibar, 2017ko urria) - Industria 4.0ren aldeko eta berrikuntza teknologikoak fabrikazio-prozesuetan instalatzearen aldeko apustua zabaltzeko asmoz, IK4 euskal aliantza teknologikoak parte-hartze handia izango du egun hauetan egiten ari den [Fabrikazio Aurreratuaren eta Makina Erremintaren Kongresuan](#).

Kongresu horrek IK4ren babesa du eta urriaren 25etik 27ra egingo da Gipuzkoako Teknologia Parkean. Aurten, garrantzi berezia du gai honek: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatzea fabrikazio-ingurunean eta ekoizpen doituaren alorrean.

Aliantzak bere standa du kongresuan eta zenbait hitzaldi tekniko ematen ari da ekitaldi horretan, ezagutzera emateko zer gaitasun eta ahalmen dituzten bere zentro teknologikoek fabrikazio-prozesu aurreratuetan eta industria digitalean.

IK4-IDEKO zentro teknologikoak, zehazki, hitzaldi bat emango du bi ardatz hauen inguruan: disko birakariaren bidezko diamantaketa-prozesurako eredu zinematiko berri bat eta aurpegiak artezteko erabiltzen diren estrategien sailkapenari buruzko ikerketa bat.

Horrez gainera, zentro teknologikoko zenbait adituk makina-erremintaren eta osagaien fabrikazioko digitalizazioari buruz jardungo dute eta IK4-IDEKOren zuzendari gerente Nerea Arangurenek teknologia 4.0 erabiltzen duten kasuei buruzko mahai-inguru bat gidatuko du.

Zentro teknologiko horretako ikerlariak, gainera, beste hitzaldi baten egilekide ere badira: fabrikazio aurreratuaren alorra eta adimen artifizialeko teknika makinei aplikatuak.

IK4-TEKNIKERek, bestalde, bi lan eramango ditu kongresura. Batetik, LMD teknologiarren bidez pieza metalikoak sortzeari lotutako akats eta muga geometrikoen ikerketa bat, eta, bestetik, aldibereko urradura anizkoitzen teknikaren bidez makina-erremintan egiaztapen bolumetrikoa egiteari buruzko hitzaldi bat.

Era berean, IK4-IKERLANek, Fagor Arrasate eta Konikerrekin batera, poster bat aurkeztu du estanzazio-sistemen Virtual Commissioning-erako zirkuitu hidraulikoen ereduak buruz.

Aliantzak oso presentzia nabarmena du kongresuko posterretan. Makina-erremintaren digitalizazioan, garapenean, diseinuan eta fabrikazioan eta fabrikazio aurreratuko soluzioetan egindako aurrerapenen berri ematen du haietan.

“Teknologia digitalak industrian indarrez sartu direla-eta ekoizpen-instalazioetan egiten ari diren eraldaketek fabrikazio-paradigma berri bat ekarri dute, zeinaren ezaugarri nagusia baita automatizazio-prozesuetan eraginkortasunez eta segurtasunari eutsita aurrera egitearen zailtasuna. Makina Erremintaren Kongresuak aukera ematen digu alor horretan probatutako azken berrikuntzak eta joerak partekatzeko fabrikazio industrialeko erreferentzia gailenekin”, esan du Javier Lauciricak, IK4ko zuzendari zientifikoak.

Fabrikazio Aurreratuaren eta Makina Erremintaren hogeigarren Kongresua Makina Erremintaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (AFM) antolatu du, eta hitzaldi-programa oparoa eskaintzen du, hainbat gaitan sakontzeko: makinaren eta haien osagaien diseinuko joera nagusiak, fabrikazio-prozesuak, automatizazioa, robotika, ebaketa-erremintak eta gehikuntzako fabrikazioa.